

# TURISMOAREN ZERO URTEA GERTA OTE DAITEKE 2020 COVID-19AREN ERAGINEZ?

COVID-19 pandemiak lurrikara baten gisa astindu du turismoa, mundu osoko estatuek herritarrei bidaiatzea eragotziz estreina eta, ondoren, jendea etxetik urrun mugitzeko gogoak hoztuz, beldurraren eta krisi ekonomikoaren poderioz. Azken urteotako bidaiatzeko sukarraren amaiera iragarri dute batzuek eta, aldiz, besteek uste dute industria bezala estatuak ahaleginduko direla jendea lehengo ohituretara bihur dadin.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**E**konomia osoaren osagai garrantzitsu batez ari gara: turismoari lotuta zeuden 2012an munduko zerbitzuen %30, esportazio guztien %6. 2008ko krisi ekonomikotik irteten ari zela, 2020an SARS-CoV-2 birus txiki bezain kutsakorrek kolpatu du bete-betean turismoa. Turismoaren Mundu Erakundeak maiatzean kalkulatu zuen aurten %20-%30 artean murriztuko direla nazioarteko bidaiak eta sektoreak galdu ditzakela 30.000-50.000 milioi dolar. Hori horrela bada kopuru globaletan, badira oporraldien negozioei estuago lotutako hiri eta eskualde asko %80-%90eko galerak nozitu ditzaketanak.

Ekonomia soziala, alternatibak eta trantsizioa lantzen dituen *Socialter* aldizkari frantsesak zenbaki berezia eman dio gaiari: “*Tourisme, Année Zero*” [Turismoa, zero urtea]. Dosierraren atariko editorialean dio: “COVID-19ak odolustuta utzi ditu nazioarteko turismotik bizi diren eskualdeak, hegaldien industria lurrari josita, Barne Produktu Gordina gruyère gazta baten gisa zulatuta... Zer iragartzen digu munduaren geldialdi honek? Gerta ote daiteke 2020a izatea turismoak beste norabide bat hartu zueneko Zero Urtea? Goiz da aurreikuspenik egiteko baina normalena litzateke diru-laguntza publikoz dopatutako abiatze berri baten aurrean egotea”. Horixe da uste duena *Socialter*-en elkarrizketatu duten Philippe Bourdeau geografoak ere. COVID-19 krisiak, Bourdearentzako, lehen kolpe

batean eraitsi du turismoaren hazkundera etengabeen askok jarrita zeukaten fedea: itsututa industria hau ezin delako deslokalizatu (Balear Uharteak ezin dira lekutik mugitu...), ahaztua zuten lekuotara turistak eramatea zela baldintza. Epidemia erakutsi du sektorea zein zaugarria zen: “Espero genuen Txinatik turistak etortzea eta birusak iritsi zaizkigu: paradoxikoki turismoak lagundu du zabaltzen gero bera paralizatu duen gaixotasuna”. Aldizkari berean Saskia Cousin turismoaren antropologian berezitutako irakasleak (baditu dozena erdi bat liburu gaiaz) azaltzen duenez, turismoa bere hirugarren iraultza betean zegoela harrapatu du koronabirusak.

Lehenbiziko iraultza XIX. mendean ezagutu zuen, garraio bide komunitarioak jaio zirenean, batik bat trena. Bidaien antolaketak orduan hartu zuen dimentsio ekonomikoa. Bigarren iraultza 1950. hamarkadan aireko garraio bideek eragin zuten, bidaiari entzako hegaldiek, eta turismoak jauzi egin zuen ordura arteko eredu artisaletik eredu industrialera. Hor sortu zen mundu mailako turismo industria, nazioarteko hotel kateekin, formatu estandarreko gelek, bidai agentziekin... Cousinen aburuz, hirugarren iraultza da gaur bizitzen ari garena, plataformen turismoarena: mundu mailako hotel eta hegaldi enpresetatik jauzi egin dugu turismoaren ekonomia osoa finantziarizatzen. Plataformek beren negozioa ondasun

komunen gainean eraiki dute, merkatura eramanez orain arte ekonomia-aren alorretik kanpo zegoena: paisaiak, etxebizitza, intimitatea, partekatzearen ideia, beste jendeak ezagutzea... –hau da, berez komertziala ez dena–. Airbnb bezalako plataformek aprobetxatzen dute jendeak turismoarekiko daukan arbuioa eta horren bidez etxe bat alokatzen duena ez da sentitzen ohiko hotel batera doana bezain “turista”.

## TURISTAK DENOK ETA INOR EZ

“Plataformek aldarrikatzen dute bidaiariari lekuko jendeekiko harremanak sendotzen laguntzen diotela –dio Cousinek–, baina errealitatean ondorioak alderantzizkoak dira. 2015ean analizatu genuen Airbnb-ren basea eta aurkitu genuen alokatzaileen %10 baino gutxiago zirela beren etxeko gela bat proposatzen zuten biztanle pribatuak. Kapitalismoaren aitzindaritzan ari dira plataformak: ondasunik eta enplegaturik eduki gabe, bitartekaritza eskuratzen dituzte etekinak, arrisku guztiak utziz haiengana jotzen duten etxe-jabeen edo enpresen gain. Plataformok hain daukate komunikazio ahalmen handia ezen eta etxetako gelak alokatzeko sare tradizionalak [*chambre d’hôtes*, frantsesez] hondoa jo baitute”.

Soberan legoke ARGIAren irakurleari azaltzea zer nolako kritikak piztu diren bazter guztietan turistifikazioaren kontra. Alabaina, denok jarraitzen dugu turismoa egiten, batera edo bestera... sa-



### BIRUSA ETA DIRUA.

COVID-19AK ERAGINDAKO BELDURRAK ETA KRISI EKONOMIKOAK ERAGIN DUTE TURISMOAREN AURTENGO NAHASMENDUA. CHUDEACH SATITEN ARGAZKIAN, EMAKUME GAZTEA HUTSIK DAGOEN AIREPORTUAN BARRENA.

rritan amestuz egiten duguna turismoa ez baina beste zerbait dela.

Cousinek oroitarazi du Dean McCannell soziologoak jada 1970an azaldu zuela funtsean turismoa egin arren norberak bere buruari turista izatea ukatzearen fenomeno. “Zu norabait mugitzen hasten zarenean, zuri harrera egiteko berehala antolatzen da hasieran artisautza eta ondoren industria. Orduan konturatzen zara dena antolatuta dagoela eta hori ez zaizu laketa, zu bakarra sentitzen zarela, bidegile bat. Orduan ohiko eszenatokiaren atzeko aldearen bila hasten zara, bazterretan begira, beti autentikotasunaren bila baina honek ihesi egiten dizula beti. Gero, ertz eta bazter horiek ere ezagunak bihurtzen direnean, are urrutirago joko duzu bilaketan. Gure turista estatusari ihes

egin nahi izatea ahalegin postmoderno bat da, alferrikakoa eta harrokeriaz bete”. Philippe Bourdeauk uste du herrialde aberatsetan *post-turismo* aroan sartuta gaudela. Hau da, hasieran oportetako bisitetan ezagutu diren turismo leku asko, kostaldekoak bezala mendialdekoak, bihurtu dira jende askorentzako ohiko bizileku; eskualdeok erretretara iritsitako jendeak erakartzen dituzte sarritan, baina baita oraindik lanean ari diren asko ere, bilatzen dutenak bizimodu edo bizileku hobea. “Orain ‘bizimodu ona’ -dio Bourdeauk- deitzen diogu etengabeko opor giro batean bizitzeari. Oporraldien ereduak hain emaitza onak eman ditu, ezen eta gaur egun turismoa alde guztietan ageri baita”.

Eta 2020ko krisi honekin zer gertatuko da? Epe laburrean pentsa daiteke

hurbileko bidaiak loraldi berri batean direla, pandemiak eraginda baina baita herritarrak sakelean jada nabaritu duen krisi ekonomikoak ere. 2008tik mugimenduak etxe inguruetara gehiago mugatzeko joera bazegoen, *krisi turismoa* aipatzeraino. COVID-19ak itzaliko ote digu urrutirago joateko gure irrika? Horra Bourdeauren erantzuna: “Egia da kilometro baten barruan konfinatuta egon zarenean exotismoa ager daitekeela etxetik 10 kilometrora ere. Baina *post-turismoa* aldarrikatzen duten pertsona bakanetatik harago, ezseptikoa naiz horrekiko, turismoaren industria eta estatuak jada zorrozten ari direlako lehengo bidetik segitu ahal izateko tresnak. Iku-siko dugu ea noraino iristeko prest dauden eredu industrial eta mundializatu honen sustapenean”. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f t